BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

1453

EBAZPENA, 2013ko martxoaren 5ekoa, Osasun Publikoko zuzendariarena, «ECC – Evaluación y Control de Contaminantes SL» sozietateak emandako maila gaituko ikastaroa gainditu duten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden maila gaituko aplikatzaile txartelak banatzeko baimena ematen duena (ikastaro hori Erandion eman zen, 2013ko otsailaren 11tik 22ra).

Ikusi da «ECC – Evaluación y Control de Contaminantes SL» sozietateak bidali duen dokumentazioa, 2013ko otsailean emandako ikastaroen garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa. Ikastaroa ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaileentzat zen (maila gaitua).

Kontuan izan behar da Osasun Publikoko Zuzendaritzak baimena eman ziola «ECC – Evaluación y Control de Contaminantes SL» sozietateari maila gaituko ikastaroak emateko (2012ko urriaren 8ko Ebazpena). Ebazpen hori, hain zuzen ere, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko eman zen (257/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena). Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumenerako eta elikagaien industriarako tratamendu bioziden aplikatzaile txartela –maila gaitukoa–, ebazpen honen eranskin modura doan zerrendako pertsonei emateko agintzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 5a.

Osasun Publikoko zuzendaria,
MARÍA DORRONSORO IRAETA.

ERANSKINA

INGURUMENERAKO ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO TRATAMENDU BIOZIDEN APLIKATZAILE TXARTELA (MAILA GAITUA) ESKURATZEKO BAIMENA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

Izena	1. abizena	2. abizena	NAN	Txartel zk.
Alfonso	Alvarez	Barrenechea	72693227W	0010/2013